

## Kultura

Napoka Iria taldeak eta Anarik zuzenekoak eskainiko dute, gaur, Plateruenean >11

## Mendiguren y Zarrauak 146 langile kaleratu ditu Abadiñon eta Berrizen

Inbertsore batek Abadiñoko lantokia erositu du. Berrizko lantegia itxi, eta 73 langile kontratatzea ei da asmoa

Enpresaren likidazio prozesuan, lan-kontratuen amaierako espedienteak langile guztiei eragiten die. 146 langile kaleratu dituzte dagoeneko, eta datozen asteetan beste 106 beharginen kontratuak bertan behera utziko dituzte. Langileei jakinarazi dietenez,

Cosmos Taldeko inbertsore berriak Berrizko lantegia ixteko asmoa du. Mendiguren y Zarrauako 73 langileri kontratu mugagabea egingo diete. Kaleratutakoekin lan poltsa bat sortzeko borondatea adierazi du inbertsore berriak. >4



## Zabala eta García Ariño buruz buru

Ibai Zabala pilotari gazteari Roberto García Ariño beteranoa elkarrizketatzea proposatu dio 'Anboto'k >2

Kepa Aginako

**A. Urreta** podologa



**Alnara Urreta Jainaga**

- Oinetako patologiak
- Neurrira egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

R.P.S. 214/06

Herriko gudarien kalea, 10, behea - 48200 DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404

**GALLASTEGI**

www.gallastegiharategiak.com 1955ean sortua

Zalduasolo, 8 946 827 038 48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1 946 812 247 48200 DURANGO

EUSKO LABEL

### Durango > 2

Sarbide nagusirik eta komunik barik jarraitzen du tren geltokiak

### Durango > 3

Laukoiztu egin da etxeetan egindako lapurreten kopurua

### Durangaldea > 4

Saharauiei laguntzeko 6.800 kilo jaki batu dira Durangaldean

### Atxondo > 7

Atxondo udalik zorpetuena dela gezurtatu du Bilduk

# Herririk herri

## > DURANGO



## Sarbide nagusirik eta komunik barik jarraitzen du tren geltokiak

Ana Isabel Oregi sailburuak adierazi zuen iazko udarako erabilgarri egongo zirela geltokiko komunak eta sarbide nagusia, baina aurreikuspena ez da bete

### > MARKEL ONAINDIA

Komunik barik eta sarbide labainkorragaz. Egoera berean jarraitzen du tren geltokiak. 2012ko abenduan inauguratu eta lasterrera, hainbat erabiltzaile kexatu egin ziren komun faltagatik eta sarbideko eskailerenegatik. Kexei erantzun zien Ana Isabel Oregi Lurralde Politika sailburuak: “Uste dugu komunak 2013ko udan egongo direla erabilgarri, eta geltokiko mendebaldeko sarbidea ere orduan zabalduko da”. Baina egindako aurreikuspena ez da bete.

Komunak momentu honetan eraikitzen dabiltzan merkatalgunean egongo dira. Baina, komertziorako eremu horren

zabalpena mendebaldeko sarbide nagusia izango denak bal-

ETSkordezkariak aitortu dute oraindik denbora asko falta dela sarbide berria egiteko

dintzatzen du. Horrela adierazi du merkatalguneko obretan dabilen Murias enpresako arduradun batek: “Gure lanak egiten ari gara barruan, baina kanpokoak ez dira hasi”. Geltoki zaharra bota, eta inguru urbanizatu beharko du Eusko Trenbide Sareak sarbidea egiteko.

Muriaseko arduradunak esan du euren asmoa 2014ko udarako prest egotea dela, baina baldintza horregatik ez dela segurua: “Epemuga ez da oso argia”.

ETSkordezkariak aitortu dute oraindik denbora asko falta dela sarbide berria egiteko, eta hori ez dute uste urtebete baino lehen gertatuko denik. Estalita egongo da, eta ohiko eskailera, eskailera mekanikoak eta igo-gailua edukiko ditu.

Obretan aurrerapausoak etorri bitartean, tren erabiltzaileek ezingo dute geltokian komunera joan, eta bertara bajatzeko aterperik gabeko eskailera inklinatua erabili beharko dute, euriaz labainkor bihurtzen dena.

## “Ez da ametsa, aldaketa eskura daukagu”

EH Bildun elkartu dira Bildu eta Aralar udal taldeak

### > M.O.

2011ko udal hauteskundeetara bakoitza bere aldetik aurkeztu ziren Bildu eta Aralar, baina 2012ko lehendakartzarako hauteskundeetan EH Bildun egin zuten bat. Administrazioetan

euren ildoak bateratzen joan dira geroztik, eta Durangon ere elkartu dira. Joan zen domekan egindako aurkezpenean esan zuten udal talde bakarra osatu dutela. Gainera, 2015eko hauteskundeetara begira ere ipini dira



EH Bilduko ordezkariak domekako aurkezpenean.

dagoeneko, eta gogoratu dute bien botoak gehituta lehen indarra liratekeela: “Durangoko lehen indar politikoa aurkeztera gatoz. Hau dagoeneko ez da ametsa, Durangon aldaketa eskura daukagu, posible da”.

Indarrak batu, eta eredu aldaketa bultzatzea da euren helburua, eta udalean legez kalean ere jardungo direla diote. Udal gardena eta parte-hartzailea izatea gura dute: “Udaletxea plazara zabaldu nahi dugu. Urtetan iluna eta zurruna iruditu zaigu”.

EAJren kudeaketagaz ere ez dira ados agertu, “arduragabea” dela diote. Etxebizitza espekulaziorako erabili dela, eta obra publiko batzuk “gainkostu itzulekin” amaitu direla kritikatu dute, besteak beste.

Euren ustez, posible da aldaketa ematea, baina zinegotziek bakarrik ez dutela garatuko esan dute: “Guztion artean egingo dugu”.

## Aparkalekua ia hutsik egoten da egunero

Trenera doazenek ez dute aparkalekua erabiltzen

Tren geltoki berriagaz batera 350 bat autorentzako lekua daukan aparkalekua eraiki zuten lurpean, eta iazko uztailan zabaldu zuten. Momentuz ez du jende askok erabiltzen, ia hutsik egoten da egunero. “Zortzi-hamar bat auto bakarrik sartzen dira eguneko”, berretsi du Murias enpresako arduradunak. Merkatalguneaz gainera, aparkalekua eraikitzeke arduraren eredu edukiko dituen enpresa horrek.

Alluitz kaletik dauka sarrera aparkalekuak. 350 leku horietatik 96 tren erabiltzaileentzat dira espresuki, eta 0,80 euro ordaindu behar dute. Zerbitzu horregaz, herritarrei

trena erabiltzeko erraztasuna eman gura diete. Bestalde, aparkatzeko gainerako lekuekin zerbitzu orokorra ematen dute, eta orduko 1,20 euro kobratzen dute autoa uzteagatik.

Trenera doazenek, beraz, ez dute aparkalekua erabiltzen. Baina hutsik egotearen arrazoiak geltokiaren egoeran topatu du Muriaseko arduradunak. Bere ustez, aparkalekua eta eraikitzeke prozesuan dagoen merkatalgunea “oso erlazionatuta” daude: “Dendak zabalik daudenean beste mugimendu bat hasiko da”. Oraingoan, aparkalekuak ez daukela funtzio handirik uste du: “Ez du askorako balio momentu honetan”.

## EAJk Kirolene baztertuta daukala uste du EH Bilduk

### > M.O.

“Lotsa sentitzen dugu EAEn dagoen kirol titulazioen eskola ofizial bakarra guztiz baztertuta eta ahaztuta daukazuelako”. EH Bilduko Eider Uribe eta Iker Urkizak gogor kritikatu dute EAJ. San Ignazio auzunean, erreka alboko eraikin zaharrean dago Kirolene. 30 lanpostu sortzen dituela, eta 900 ikasle daukela dio EH Bilduk, eta leku hobe bat merezi duela: udalak ekipamenduetarako daukan lurra edo tren-geltokiko eremu librea proposatu ditu, adibidez. Kirolene Durangotik ateratzeko arriskua dagoela ohartarazi dute, beste herri batzuetan egoitza hartzeko aukerak ei daudelako.

## Itziar Alberdi atxilotu dute Mexikon

### > M.O.

Joan zen domekan Itziar Alberdi durangarra atxilotu zuten Mexikon, ETAKo kide izatea eta 90eko hamarkada hasieran hemezortzi hilketara egitea egotzita. Berez, Juan Jesus Narvaez ere atxilotu zuten. Espainiako Barne Sailak eman zuen atxilotetaren berri, eta operazioa iheslarien kontrako estrategia zabal batean kokatu zuen. Eguaztean Madrilen deklaratu, eta kartzelara bidali zituzten biak.

22 urte zeramatzaten ihesi, eta Ezker Abertzaleari “harrigarria” egin zaio atxiloteta orain etortzea. “Bizi dugun egoera historikoa aprobetxatu beharrean, gerra estrategian mantentzen da Estatua”. Asteon operazioaren kontra mobilizatu dira.

## Iaz 46 etxetan sartu ziren lapurrak, eta kopurua laukoiztu egin da

PSE-EEk kezka agertu du lapurreta kopuruak nabarmen egin duelako gora



Lapurreta kopurua %35 handitu zen 2013an, 2011gaz alderatuta.

### > MARKEL ONAINDIA

PSE-EEren udal taldeak iazko lapurreta kasuen inguruko informazioa eman du, eta kezka agertu du, kopuruak nabarmen gora egin duelako. Iaz, 46 etxetan sartu ziren lapurrak, eta 2011ko datuekin alderatuta, laukoiztu egin da kopurua.

Lapurretak orokorrean hartuta, etxeetakoak zein kalekoak,

204 izan ziren iaz. Datu hori ere handitu da: 2011gaz alderatuta, %35eko gorakada eduki du. 204 lapurreta horietatik 109 San Fausto jaietan gertatu ziren, PSE-EEren arabera.

### Neurri eske

Egoera hori ikusita, neurriak hartzea eskatu du PSE-EEko Pilar Rios bozeramaileak; tar-

tean, ertzainen eta udaltzainen presentzia handiagotzea. “Martxan ipini ahal den neurri eraginkorrena agenteek auzoetan patruilatzea da”, esan du Riosek. Herrizaingo Sailari ere bidali diote eskaera.

Antzeko neurriez berbetan, Riosek gogoratu du euren ekimenez 2012an gaueko zaintza egiteko behalariak egon zirela.

## Udala Segiren aurkako auziaren kontra dago

Mozioa onartu arren, adostasun falta izan da nagusi

### > M.O.

Durangoko Udala Segi auziagaz lotutako epaiketaren aurka agertu da. Bilduk eta Aralarrek aurkeztu zuten hasierako mozioa, baina erretiratu egin zuten EAJk ordezko bat proposatzean. Testu biak bozketan egonez gero, bat bera ere ez zen onartuko.

Bildu eta Aralarren ustez, “lotsagarria” da EAJren jarrera.

Izan ere, mozioa onartu arren, adostasun falta izan zen nagusi. Bildu eta Aralarren testua, Euskal Herriko 40 lagun ezagunek sinaturiko adierazpen bat zen, Segi auziko epaituek azken alegatu lez erabili dutena.

Besteak beste, PSE-EEko kide Jesus Egigurenek eta Rafaela Romerok babestu zuten. Baina, ez dute gauza bera egin Durangoko sozialistek; Pilar Rios bozeramaileak esan zuen alderdiaren izenean daudela udalean, eta testuaren babesleek maila pertsonalean sinatu dutela.

Epaiketa amaituta, eta fiskalak sei urteko kartzela zigorra eskatuta, sententziaren zain daude Segiko kide izatea leporatutako 40 gazteak, Eñaut Aiarzaguena iurretarra eta Ibai Estibarlanda elorriarra tartean.

### > OTXANDIO

## Bandera ipini beharra salatu dute mozioan

### > J.D.

Espainiako bandera udaletzeko balkoian ipini eta gutxira, mozioa onartu du Otxandioko udalbatzak. Testuan azaldu dutenez, bandera “espainiartasuna indarrez ezartzeko ahalegina” da. Mozioa gobernu taldearen botoekin onartu dute. EAJ abstentitu egin da.

Mozioan nabarmendu dutenez, otxandiarren gehiengo ez da Espainiako banderagaz identifikatuta sentitzen, “ikur arrotza da herritarren gehiengoaren begietara”. Espainiako arazoa demokrazia eza dela dio testuak: “Estatu demokratiko batek gehiengo hori errespetatu luke, besterik gabe, naturala delako, normala delako”. XXI. mendean Espainiak “kultura politiko atzerakoia” duela salatu dute. “Kultur homogeneizazioa; horixe da Espainiak gure herriri eskaintzeko duena”.

## Ruben Garate gogoratu eta dispertsioa salatu dute

Motxotegira egindako irteeran Garate gogoratu zuten

### JOSEBA DERTEANO

Joan zen zapatuan 60 bat lagunek parte hartu zuten Ruben Garate gogoratzeko Motxotegi mendira egindako irteeran. 2000. urteko otsailaren 12an hil zen Ruben Garate, Jose Antonio Hernandez preso bisitatzerak Alcalá Mecora joan, eta handik bueltan zetorrela. Motxotegin

testu bat irakurri zuten. Gogoratu zuten, “25 urte joan dira euskal preso politikoen sakanaketa hasi zenetik, 25 urte, ehunka presori, eta beraien senideei eta lagunei, beste kondenatutako bat jarri zigutenetik”. Egoera hau “25 minutu gehiagotan ere” ezin dela mantendu salatu zuten.



Motxotegiko irteeran parte hartu zuten herritarren familia argazkia.

## Gasteizerako linea hobetzeko eskaera indartzen dabil

Zerbitzua hobetzea eskatu diote Arabako Aldundiari

### > M.O.

Arabako Biltzar Nagusietan Durango-Gasteiz autobus linearen inguruko eztabaida eduki zuten eguaztenean. Joan zen astean egoeraren berri emateko eskatu zion EAJ taldeak Alicia Ruiz de Infante Garraio diputatuari, baina horrek linea hobetzeko eskaerari ezezkoa eman ostean, mozioa aurkeztu zuen EAJk. Bilduren, PSE-EEren eta EBren adostasuna lortuta, zerbitzua hobetzeko neurriak eskatu dizkiote Arabako Foru Aldundiari. Aitziber Irigoras alkateak eta Iker Oveja zinegotziak bertatik bertara jarraitu zuten batzarra.

Erabiltzaile asko zerbitzuegatik kekatu izan dira udalean, esanez autobusa sarritan matxuratzen dela, ez duela berogailurik, ez aire egokiturik, jarlekuak egoera oso txarrean

daudela, eta, sartu ezinik, Durangon botata geratu izan direla, adibidez. Eta horren ostean etorri da eztabaida politikoa. Linearen esleipena Alsa enpresarena da, eta 2015era arte luzatu zioten baimen hori. Diputatuak esan zuen esleipena aldatu arte ez dela hobekuntzarik gertatuko, baina oposizioa ez dago ados, eta neurriak orain hartzea gura dute. Gainera, Aldundiari zerbitzua ikuskatzea eskatu diote, eta beharrezkoa bada, esleipena bertan behera uztea.

Mozioagaz, Arabako eta Bizkaiko aldundiei herritarren beharrianak betetzeko elkarlenerako formula bat topatzea eskatu diete. Izurtzako, Mañariko eta Otxandioko herritarrek ere eskatu izan dute autobus zerbitzua hobetzea; adibidez, ordutegi zabalago bat gura dute.



Autobusa Durangoko Madalenatik irteten.

## INAUTERIAK GARAIKO HERRIKO TABERNAN

Martxoak 1

AFARIA HERRIKO TABERNAN

Apuntatzeko: 946 812 580

MOZORROTU ETA ANIMATU!

DJa eta OPARIAR

**> DURANGALDEA**

# MZk 146 langile kaleratu ditu Berriz eta Abadiñoako lantokietan

Zortzi hilabetez likidazio prozesuan egon dira; otsailaren 10ean kaleratu zituzten

**> ITSASO ESTEBAN**

Enpresaren likidazio prozesuagaz batera martxan ipinitako lan-kontratuen amaierarako espedienteak MZ enpresako Durangaldeko langile guztiei eragiten die. Beraz, adjudikazio berria gertatzen denean, datozen asteetan, gainerako 106 langileen kontratuak ere bertan behera utziko dituzte. Langileei jakinarazi dietenez, Grupo Cosmos enpresak eskuratu du MZren Abadiñoako lantokia. Arduradun berrien asmoa omen

da Berrizko lantegia itxi eta MZko 73 langileri kontratatu mugagabea egitea. Kaleraturiko langileei begira, lan poltsa bat sortzeko borondatea ere adierazi omen du Cosmos taldeak. Gipuzkoan, Nafarroan, Madrilan eta Ávilan dauzka Cosmos taldeak lantokiak.

Langileen ordezkariak kezkatuta zeuden urte amaieran. Enpresaren egoera ekonomikoa zela-eta, zalantzak zituzten kaleratzeengatik beharginei zegozkien kalteordainak jaso-

ko zituzten ala ez. Baina asteon adierazi dutenez, kaleraturiko 146 langileek jaso dituzte legez dagozkien kalteordainak.

Hala ere, langileen ordezkariak azpimarratu dute ez dela ulergarria “Mercedes bezalako erosle handi bat galdu, eta likidazio prozesuan egon arren, 2012an baino irabazi gehiagorik amaitu izana 2013ko ekitaldia”. Langileen ordezkarien ustez, zuzendaritza batzordearen azken urteetako “kudeaketa negargarria” erakusten du horrek.



Grupo Cosmos enpresak eskuratu du MZ.

## “Bidegabeki kudeatu du zuzendaritzak dirua”

Kaleratu duten langileetako bat da Luis Torres

**Martitzenean batzartu zineten sindikatuan egoera aztertze-ko. Zer analisi egiten duzue?**

Uste dugu etorkizuna zeukan Mendiguren bezalako enpresa batek horrela amaitzea kudeatzaileen interes pertsonaletan oinarrituriko gestio txarraren errua dela. Enpresaren dirua modu bidegabean erabili dute, eta kudeaketa horren ondorioa 246 langileok sufritu dugu. Geratzen direnek lan baldintza askoz txarragoekin jarraituko dute, eta langabeziara goazenok ere oso zail edukiko dugu

lana topatzea. ELA sindikatuko delegatuok, bat izan ezik, kaleratu gauden baina kaleraturiko langileekin hainbat tramite egiten dihardugu oraindik. Hemezortzi urtez lankide izan eta gero, ez dugu jendearekin harremana apurtuko.

**Zein da lan gatazka honen abiapuntua?**

Enpresako zuzendaritzak langileek hartu gura zituen erabaki batzuen –besteak beste, soldataren %15eko jaitziera– aurrean greba hasi genuen,

geure eskubideak defendatzeko. Enpresaren estrategia izan da grebaren erdian likidazio plana aurkeztea. Arduradunek geure lepoan utzi gura izan zuten egoeraren ardura. Baina gezurra da %15eko soldata jaitziera onartu bagenu, ez ginatkeenik egoera honetan egongo.

**Aurretik ere hainbat lan erregulazio espediente aurkeztu zituen zuzendaritzak.**

Bai, azkenengo kaleratze espediente hau bederatzigarrena izan da. Horietariko hainbat inpuñatu ditu ELAk.

**Zuen lantokiko gatazka ez du oihartzun handirik izan. Zergatik dela uste duzue?**

Egia da isilpean igaro dela. Greba egin genuenean izan zuen

oihartzun gehien, Mercedes bezalako bezero inportantei eragiten zuelako. Eusko Jaurlaritzak ere esku hartu zuen hor, baina gero, ez garela inoren ardurakoak sentitu dugu. Mercedes inporta izan zaie langileok baino gehiago. Jende gutxik adierazi du interesa, eta prozesua luzea izan da, luzeegia.

**Langile bezala zer ondorio atara duzu honetatik guztitik?**

Enpresek azpajokoa aritzeko aukera asko dutela, prozedura konkurtsalaren legea harrezkodun handien mesedetan egina dagoela, eta langileak babesgabe gaudela, guztiz. Eta administratzaile konkurtsalek publikoak, funtzionarioak izan behar luketela, prozesu haue-tan benetan inplikatzeko.



**Luis Torres**

Berrizko lantokiko langile kaleratuetakoa bat

*18 urtez enpresan lanean  
10 urtez komiteko kide,  
ELA sindikatuaren ordezkari*

# Saharauiei laguntzeko 6.800 kilo jaki eman dituzte herritarrek

Saharauiei jakiak erroteko kamioia Durangaldeko udalen laguntzagaz erosi dute

**> MARKEL ONAINDIA**

Saharauiekiko karabana solidarioa martxan dago. Urtero legez, jakiz betetako hainbat kamioi Euskal Herritik Tindufeko saharar errefuxiatuen kanpalekura (Aljeria) bidea egingo dute, eta Durangaldeak ere egin du bere ekarpena. Herria auzo

elkartek koordinatu du aurten ere dinamika solidarioa, eta bertako kideek esan dute eskualdeko herritarrek 6.800 kilo jaki eman dituztela dohaintzan. Gainera, udalen diru-laguntzekin –33.000 euro– beste 17.000 kilo produktu erosi dituzte. Jaki guztiak erroteko kamioia udalen

laguntzagaz erosi dute. Ekarpeneren artean Durangoko Udalarena nabarmendu dute Herrrikoek; beste 6.000 euro eskaini dituzte, eta botikak eta atun latak erosi dituzte horregaz.

Abadiño, Berriz, Durango, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Garai eta Zaldibarreko udalek babestu dute ekimena, baita Amankomunazgoak ere. Elorrion Lajwad elkarteak dinamizatu du proiektua. Bestalde, hainbat herritarrek, JAED elkarteak eta Eroskik dohaintzan emanda, konpresak, arropa eta jostailuak ere bidaliko dituzte elkartasun kamioian.

Bihar irtengo da karabana solidarioa Euskal Herritik, eta tartean egongo da Durangaldean jakiz eta laguntzaz betetako kamioia. Aurreko edizioen antzera, Angel Alejok gidatuko du kamioia Oraneko (Aljeria) portura arte.



Karabanaren antolatzaileetako batzuk iazko ekimenean.

**> GARAI**

## Inauterietako jai egingo dute Herriko tabernan

**> M.O.**

Martxoaren 1ean inauterietako jai ospatuko dute Garaiko Herriko tabernan. Afaria, jolasak eta musika eskainiko dituzte, eta jaiaz gozatzera animatu dituzte herritarrek. Tabernako arduradunek azaldu dute aurtengoa hirugarren edizioa izango dela, eta aurreko urteetan izandako harrera kontuan hartuta antolatuko dute. Giro ona sortzen dela esan dute.

21:30ean ipini dute afaltzen hasteko ordua. Ostean, jolas batzuk, opariak eta sorpresak egingo direla aurreratu dute. Gero, DJ batek ipinitako musika dantzaldia egingo dute.

Mozorroaren jaiaren parte hartu gura dutenek telefonoz eman ahal dute izena, tabernara bertara deituta, 946 812 580 zenbakira. Arduradunek esan dute 40 euro ordaindu beharko direla afariaren eta jaiaren truke.

**> MAÑARIA**

## KZ Gunean ikastaroak egongo dira

**> M.O.**

Mañariko KZ Gunean ikastaro berriak egingo dira aukeran, martxoan. Udalak jakinarazi du dagoeneko posible dela izena ematea, eta interesa daukate- nek liburutegian eman beharko dute izena otsaila amaitu baino lehen.

Bost ikastaro antolatu dituzte: *Oinarrizko Interneta, Google Apps, Irudia eta soinua, Software librea* eta *Sare sozialak*. Lehenengo bi ikastaroek hogeitau orduko iraupena edukiko dute, software librearen ingurukoak hamabi, eta gainerako biek hamalau. Ikastaro bakoitzaren egutegia zehaztu barik dago, baina orduetegi berbera edukiko dute guztiek, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara.

Ikastaroei buruzko informazio gehiago gura duenak udal- txekeko 946 818 998 telefonora deitu dezake.

# Oraindik ikastaroa gainditu daiteke



Guraso askorentzako euren seme-alabek gutxi barru ikastetxean bigarren ebaluazioari aurre eginez lortuko dituzten emaitzak erabakigarriak izango dira aurtongo ikastaroa gainditi edota gaintzeko eragozpen larririk ez izatea nahi badute.

Jada, hainbat guraso larritzen hasita daude euren seme-alabek ikastaroan orain arte izandako gorabehera eta gaintitu gabeko ikasgaiak ekainera arte gelditzen den epealdian gaintituko ote dituzten zalanztan baitira.

Sarritan entzuten dira, bai gurasoen aldetik, bai irakasleen ahotik ere, “ikasketak ez zaizkio ongi ematen”, “ez du ikasketetarako balio”, “alfer galanta da”, “ahaleginik txikiena besterik ez du egiten”, “gure semeak ez du ikasteko balio”, “ez da ikasten jartzen”, “ez du ikasteko inolako borondaterik”, “beste gauza batzuetarako interesa ikasteko agertuko balu, beste gauza bat litzateke” etab. bezalako aipamenak. Aipamen horiek, ikasleek esamolde horiei buruz gauza gutxi adieraztera ausartzen diren arren, euren motibazioa zapuztu eta ezereztatzeko bide eta ekintzarik egokienak dira.

Beraz, lehenengoz eta behin, seme-alabek ikasketetan arrakasta handia izatea nahi bada, ez dezagun euren konfiantza, motibazioa eta gaitasuna zer esaten dugunaren kontzientzia handiegirik izaten ez dugun aipamen desegokiz inausi. Horrela, mesederik ez eta kalte ugari.

Gorago aipatutakoak bezalako adierazpenak, eskola po-

rrota edota ikasketetan emaitza txarrak izaten dituzten ikasle eta ikasle horien gurasoek eta ikasleen irakasle diren ere, behin eta berri, esaten dituzte. Eskola porrota irakaskuntzak duen bideratu gabeko arazorik garrantzitsua da, ondorio asko eta latzak dituen alegia.

Ikasketetan izaten diren emaitza txarrak, maila akademikoan egoera horrek sorrarazten dituen ondorio kezkarriez gain, sendia arteko harremanetan ere eragin nabarmena dakar, etxean gurasoen eta semeen arteko liskar eta ikamiken lehergailurik garrantzitsuena izatera iristen baitira.

**Prakagorri**, irakaskuntza mailan duen bere jarduera luzean egiaztatu izan duenez, ikasleen eskola porrota edota ikasleek lortzen dituzten emaitza txarren arrazoi nagusiak ondorengoak dira: ikasketa teknikarrik eza, autoestimurik eza eta motibaziorik eza. Porrotaren oinarriak ez dira inoiz nagia, borondate falta edota ikasteko gaitasunik eza izaten.

Ikasleak, lehenengoz eta behin, ikasketetan emaitzarik bikainenak ateratzeko gaitasun osoa duenaz barru-barrutiko sinesmen osoa eduki behar du; bere aukera eta ahalmenengana erabateko ziurtasuna izan behar du; emaitzarik jasoa lortuko duenaz sinetsita egon behar du. Hortik aurrera urrats egokiak ematea besterik ez da, emaitzak aldatu eta “bikainak” lortzeko bideari ekin edota hasiteko.

Emaitza txarrak edota arte-

ga egotekoak bezalakoak izan dituzten ikasleek oraindik ikasturtea gaintitu dezakete baina horretarako ezinbestekoa da ikasturte bakoitzari dagozkion ikasgaiak jorratu eta ikasteko bakarrak ez eze bizitza guztian zehar ikasiko dena ulertu eta probetxurik handiena ateratzeko baliagarri diren estrategia, metodologia eta teknikak behingoz ikasteari ekitea.

Otsaila eta martxoa, orain arte ikasketetan bide gorabeheratsua eta eragozpenez josia izan duten ikasleentzako bereziki, erabakigarriak dira bigarren ebaluazioan eta ekainean emaitza bikainik lortu nahi bada.

Ikasketa-emaitzak aldatu beharra dago. Ikasle askok aldatu nahi du, baina ez dakite horretarako zer egin, nondik hasi, nola heldu. Galduta dabilta eta ikastetxeetan ere ez zaie, oro har, horretarako biderik irakasten. Ikasleek emaitza onak lortu nahi dituzte baina orain arteko gauza berdinak egiten jardunaz, ezertxo aldatu gabe. Eta hori ez da bidea.

Ikasleek noizbait pentsatu izan dute “aldatu nahi nuke”, “bikain bat atera nahi nuke” eta antzerakoak, baina bidea zein den jakin ezean ez dago gauzak aldatzerik. Egoera erabat aldatzeko, errotik aldatzeko, borondatea ez da nahikoa.

Are gehiago, borondatea ez da existitzen, motibazioa baizik. Gutariko bakoitzak zerbaiteko beharrezana sentitzen dugunean besterik ez da egin beharreko horri heltzeko benetako indarra eta kementa sortzen.

Gaur egun dugun irakaskuntza sistemak gurasoei, ikasleei eta irakasleei dohakabetasuna besterik ez dakarkie. Bigarren hezkuntzan “ez nahiko” etengabe lortuz dabilzan ikasle askok DBH bukatzeko zailtasun ugari izaten du. Horrek ondorio latzak dakartza, derrigorrezko bigarren hezkuntza gaintitzea baita lana aurkitu eta mantentzeko oinarritzotzat jotzen den gutxieneko titulazioa.

Batxilerrean, aipatu egoera, ugaritu besterik ez da egiten, besteak beste maila horretan lortzen diren emaitzek erabat baldintzatzen dizkietelako ikasleei eurak egin nahi dituzten Unibertsitate Ikasketak, hainbatetan ikasketok ezin egin izatea erakarrit horretarako eskatzen diren emaitzen jabe ez izatean.

Egungo teknologia berrien eraginez datuak oso erraz bilatu daitezke eta ondorioz, ikasleengan bultzatu behar diren arlo garrantzitsuetariko batzuk irakurketa, oldozmena, analisisa eta sintesia dira.

Aipatutakoetatik irakurketak arreta berezia behar duenez, hitz batzuk idatzi nahi ditut. Irakurketa eta ulermena egun

ikastetxeetan egiten dena baino askoz gehiago garatu beharra dago. Lehen Hezkuntzan hobeto irakurri, gehiago ulertu, ahozkotatuta landu, idazketa biribildu eta hobeto pentsatzea iri eman behar litzaioke garrantzirik handiena.

Tamalez, gaur egun, ikastetxeetan, ez da horrela gertatzen eta horrek ikasleei arazo oso larriak sorrarazten dizkie. Ikasleek ez dakite irakurtzen, ulertzen dutena era oso urrian ulertzen dute, irakurketa-abiada desegokia dute eta hori hezkuntza-sistemak eragindako ondorioa da.

Oro har, ikasleek irakurgai garrantzitsu edota zailik jasotzen dutenean irakasleek “irakurri astiro eta arreta handiz”

**Irakaskuntzan sustatu beharreko arlo garrantzitsuak irakurketa, oldozmena, analisisa eta sintesia dira**

edota antzeko esamoldeak adieraztera ematen dizkie. Horrela akatsez jositako irakurketa-ohitura sortzen da, gero eta astiroago irakurtzen den heinean gutxiago ulertzen baita eta ondorioz arreta gutxiago jartzen da. Ikasleen kontzentrazioa eta ulermen arazo larriak aipatutako jarduera horretatik eratorzen dira.

Guraso eta semeen arteko auturik garrantzitsuetariko


bat, zalantzarik gabe, ikasketak izaten dira. Emaitza txarrak izaten badira, are gehiago. Seme askok euren gurasoen ardurarik handiena ikasketetara mugatzen dela ondorioztatuko luke, emaitzei gurasoek ematen dien garrantziagatik. Sarritan gehiegizkoa. Baina emaitzei ez zaie hainbesteko garrantzirik aitortu behar.

Ikasketa-arrakastarako bidea eraikitzen hasteko baikorrak izan behar dugu, gure semeez ondo hitz egin, atarian aipatutakoak bezalako semei buruzko adierazpenak burutik kenduz. Emaitza onak euren ahalegin, autoestimua eta inteligentziaren ondorio direla aipatu. “Alferra” edo “ez duela ikasteko balio” esamolde kaltegarriak ekidin behar dira.

Arrakastarako bidean, helburuak ezarri behar dira. Helburuak jarrita tokietara iristea asko errazago izaten baita. Helbururik izan ezean ez dago inolako heldu edota ezer eraginkortasunez egiterik. Horretarako ikasketa plangintza bat egitea ezinbestekoa da baina are gehiago ezarritako plangintza hori bere osotasunean betetzea. Betetzen ez baldin bada aztertu beharrekoa da zergatik bete ez den eta hori berriro gerta ez dadin egokiak diren neurriak hartzea. Denboraren kudeaketa egokia egitea ere beste faktore garrantzitsuetariko bat da, ikasplangintzan zehatz ezarri beharrekoa. Ikas-orduak eguneroko ordu berean izan behar dute.

Ikasketa arrakastatsu, antolatua, egoki eta emaitza bikainak lortu nahi izatekotan **Prakagorri**, zure irakurketa eta ikasmetodologia aldatuz, etekin bikainak lortzen irakatsiko dizu, zure denbora hobeto kudeatzen irakatsi eta ahalegin gutxiago eginez emaitza bikainak lortuko baitituzu, azkarrago eta hobeto ikasiz.

9 urtetik aurrera, adin muga barik,  
**PRAKAGORRI** dozu zure eta zure semeen urtenbide



## irakurri 4

**ALDIZ ARINAGO**

**Hobetu egizuz zure irakurketa-abiada eta ulermena !**  
**Errotik aldatuko dozu zure irakurketa-gaitasunak**  
**Irakurketa-abiada handia eta ulermen bikaina**

**Harritu zaitez emaitzekin !**



**PRAKAGORRI**  
Reading skills  
94 491 57 63  
DURANGO  
Barrenkale 20  
prakagorri@prakagorri.es

**> ELORRIO**

# Aurrekontu barik, proiektuak banan-banan onartu dituzte

Ibarrako zubia eraikitzeko proiektua da onartutako inbertsio handiena



Ibarrako proiektua da onartutako aldaketan artean inbertsio handiena beharko duena.

**> MARCEL ONAINDIA**

Presoen senideei ustez emango zitzaizkien laguntza baten harira, PPko Carlos Garcia zinegotziak ez zuen 2014rako udal aurrekontua babestu, eta, ustekabearen, ez zen aurrera atera. EAJren proposamenari osoko zuzenketa egin zion Bilduk, baina Garcia proposamena onartzea espero zen. Egoera horretan, gobernu taldeak izazko aurrekontua luzatzea erabaki zuen. Ondorioz, barikuko batzordean banan-banan onartu zituzten EAJren proiektuak. Bertan, Ibarrako zubia eraikitzeko egitasmoa da inbertsio handiena, 1.164.000

eurogaz. Herriguneko trafikoa arindu gura dute, Ibarra auzoa eta gasolindegia lotuta.

Beste proiektuen artean, Estibarlandan estalitako parke bat egingo dute umeentzat, 150.000 eurogaz. Gobernu taldeak esan du orokorrean herritarren bizi kalitatea hobetzeko egitasmoak direla, eta nagusiei zein merkatariei laguntzeko partidak nabarmendu ditu. Oraingoan Garcia babesagaz onartu dira. Ibarrako proiektua estrategikoa dela dio. Gainera, partida batzuk berak proposatu dituela esan du, zahartze aktiboa sustatzeko, adibidez.

Bilduren ustez, "EAJren ku-deaketa penagarriaren ondorioa" da aurrekontuekin gertatutakoa. Kritikatu dute EAJk ez duela euegaz adostasunik bilatu: "Lehen aldia da azken zazpi urteetan aurrekontuetan gobernuan dagoen taldeak ez duela oposizioko alderdiarekin inongo bilerarik izan". Bestalde, Bilduren ustez, "EAJren eredu ez dator bat bizi dugun egoera sozioekonomiko larriagaz".

Aurrekontu faltak ez dio eragin Elizaldeko igerilekuen obrari, iaz onartu zutelako finantzazioa. Hala ere, Bilduk uste du herria "hipotekatuko" duela.

**> ZALDIBAR**

# Domekan eskolan egingo dute txitxiburduntzia

Norberak eraman beharko du makila, baina udalak ipiniko ditu, musika, edaria, ogia eta txorizoa

**> I.E.**

Azken urteetan ohitura denez, musika, edaria, ogia eta txorizoa ipiniko ditu, domekan, Zaldibarko Udalak, txitxiburduntziaren ohitura mantentzen parte hartu gura duten herritar guztientzat. Domekan, 17:00etan, eskolako pilotalekuan jarri dute hitzordua. Makila, eta arratsaldea ondo pasatzeko go-go baina ez dute ipini beharko parte hartu gura duten herritarrek. Herriko ume eta gaztetxo

askoren gustuko plana izango da, zalantzarik barik, domeka arratsaldeko txitxiburduntzia.

**Gaur liburutegira**

Umeei zuzenduriko ekimena antolatu dute gaur arratsalderako, Zaldibarko udal liburutegian. Iker Diaz ipuin kontalariaren saioa izango da, gaur, 17:30ean hasita. *Kontu kontari* izeneko emanaldia eskainiko du, lau eta zortzi urte arteko herriko umeentzat.

**> IURRETA**

# Basoikoipetsu Eguna ospatuko dute domekan iurretarek

Aitte San Migel jai batzordeak antolatuta elkartuko dira txitxiburduntzia egiteko, Aita San Migel plazan

**> AITZIBER BASAURI**

Garizuma aurreko domeka den honetan, usadioari eutsi eta Basoikoipetsu Eguna ospatzeko deia egin dute Iurretan. Sasoi batean, basora joaten ziren; bertan sua egin, eta, urdaia eta txorizoa erretzen zituzten. Askok ohitura horri eutsiko dioten arren, Aita San Migel plazan ere egongo da horretarako aukera. Izan ere, txitxiburduntzia egiteko sua piztuko dute bertan Ai

tte San Migel jai batzordekoek. Hitzordua 17:00etan jarri dute. Urdaia eta txorizoa erretzeko zotzak ere egongo dira bertaratzen direnentzat.

**Eguen Zuri**

Bestalde, otsailaren 27an, Eguen Zuri eguna ere ospatuko dute. Aitte San Migel jai batzordeak antolatuta bideo emanaldia hasiko da 19:00etan. Ondoren, tоста-jana egingo dute.

**> ABADIÑO**

# Abadiñoako Gure Esku Dago dinamika aurkeztuko dute bihar, Errotan

Aurkezpen ekitaldia 12:00etan hasiko da, Traña-Matienako Errota kultur etxean

**> JOSEBA DERTEANO**

Zapatuan, 12:00etan, Abadiñoako Gure Esku Dago dinamika aurkezpena izango da Traña-Matienako Errota kultur etxean. Dinamikaren nondik norakoak azaldu, eta Abadiñoan orain arte emandako pausoak kontatuko dira, besteak beste.

Gure Esku Dago erabakitzeko eskubidearen alde Euskal Herrian lan egiten ari den dinamika da. Hiru zutarritan oinarritzen da: "nazioa gara, erabakitzeko eskubidea dugu eta herritarren garaia da". Oinarri horien gainean, ideologia guztietako jendearengana hurreratu nahi du dinamika, ahalik eta mugimendu anitzena eta parte hartzaileena izan gura du, tokian tokiko ekimenei aterkia eskainita. Abadiñoan ere sortu

da elkargune ireki. Euskaraz eta gaztelaniaz izango den aurkezpenean, datu eta azalpen orokorrez gainera, abadiñar askoren laguntzagaz landutako bideoa estreinatuko da. Amaitu gabe dagoen bideoa aurkezpeneko irudiekin osatuko da. Bertaratzaren direnei euren iritzia emate

ko aukera ere eskainiko zaie, dinamika parte hartzaile baten bidez. Gure Esku Dago dinamika Durango eta Iruñea giza kate batez lotu gura ditu ekainaren 8an. 50.000 lagun behar dira horretarako; Abadiñoan 170. Bihar, giza katean parte hartzeko metroa ere salduko da 5 euroan.



Gure Esku Dago ekimeneko kamisetak salgai egon ziren San Blas egunean.

# Baimenekin, Burger Kingen proiektuak aurrera darrai

Jatetxea zabaltzeko udal baimenak eskuratu dituzte

**> ITSASO ESTEBAN**

Abadiñoako Udalak ez ditu Bizkaidendak eta Dendak Bai elkarrekin aurkezturiko alegazioak aintzat hartu: "Txosten tekniko eta juridiko biren bitartez argi geratu da legezkoa dela lokalaren jardueraren aldatzea", adierazi dute gobernu taldeko arduradunek, komunikabide-tara bidali zuten ohar batean. Jose Luis Navarro alkatearen berbetan, "hanburgesak gorroto ditugulako jatetxe bati irekitzeko baimena ukatuko bagenio, prebarikatzen ariko ginatete".

Merkatarien elkarte biek lege urratzea ikusten dute Burger Kingek aurkezturiko proiektuan: lehen tailer mekaniko bat hartu zuen lokalean jatetxea zabaltzeko gura du multinazional horrek. Abadiñoako Independentek taldeak adierazi duenez,

aldiz, "jatetxea 397 metro karratuko lurzoruan kokatuko da, eta hori jardueraren aldatzea da, ez azalera komertziala edo eraiki-garritasuna aldatzea".

Burger Kingen irekiera saihesteko, udal araudia Lurralde Sektore Planari egokitu arte enpresa horri lizentzia gehiago ez ematea eskatu zitoten Bizkaidendak eta Dendak Bai elkarrekin Abadiñoako Udalarari. Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailaren txostenaren beharra nabarmendu zuten elkarte bi horiek. Baina Abadiñoako Udaleko gobernu taldearen arabera, "Eusko Jaurlaritzaren oniritzi txostena eskatzea derrigorrezkoa da, bakarrik, baldin eta proiektu komertziala 700 metro karratutik gorakoa bada; eta ez da Burger King-ek aurkeztu duen proiektuaren kasua".

**> DURANGALDEA ASTEON****Astelehenetik erabilgarri dago Atxondoko autobus geltoki berria**

Amaitu dira lanak, eta astelehenetik aurrera geltoki berrian geratzen ari dira autobusak. Hilabete eta erdi inguru iraun dute lanek. Errepide ondoan autobusak geratzeko tokia egokitu dute; espalo berria barrurago eraman dute, eta bere ondoan autobusari itxaroteko gunea ipini dute. Astelehenetik aurrera geltoki berrian geratzen ari dira Durangotik Elorriorako norabidean doazen autobusak.

**119.000 euro atletismo pistako obretarako**

Durangoko atletismo-pistako hobekuntza lanak amaitu ditu dagoeneko Amankomunazgoak. Sarbideak hobetzeko lanak izan dira. Sarbide kontrol sistema berria jarri dute motor-dun tornuak erabilita. Teilapea ere jarri diote. 119.000 euroko aurrekontua izan dute.

**Kurdistan izango dute berba Pinondo Etxean**

Newroz Euskal Kurdu Elkarteak bideo foruma antolatu du otsailaren 28an, Pinondo Etxean. *Las mujeres del monte Ararat* filma (Erwand Briand, 2004) proiektatu dute. Gaztelaniaz azpititulatu egongo dela aurreratu dute antolatuzaileek. Ostean, kurdistan buruzko solasaldia martxan jarriko dute.

**Enrike Huertak berbaldia eskainiko du Behargintzaren egoitzan**

Enrike Huerta Hontza Museoko arduradunak malakologiaren inguruko berbaldia eskainiko du otsailaren 26an, 18:30ean, Behargintzaren egoitzan, Laubideta kalean. Bizidun elkarteak antolatutako solasaldi horretan moluskuen inguruan jardungo du zientzialari durangarrak. Arlo honetan bizitza osoa darama ikertzen Huertak.

**> ATXONDO****Durangaldeko udalik zorpetuena Atxondokoa dela gezurtatu du Bilduk**

EAJk udalik zorpetuena dela dio prentsa ohar batean



Atxondoko herrigunea, pilotalekua eta udalategia.

**> JONE GUENETXEA**

Atxondoko EAJk prentsa ohar bidez jakinarazi ditu Herri Kontuen Euskal Epaitegiak udalaren 2011ko ekitaldiaren inguruan kaleratutako txostenaren datuak. Jeltzaleek diotenez, Atxondokoa Durangaldeko udalik zorpetuena da. "Urte horretan, zorpetzea bere ohiko sarreren %65era heldu zen".

Jeltzaleek diote epaitegi horrek gastuak murriztea aholkatu diola Atxondoko Udalarari. Gaineratu dute pertsonalaren gastuak, soldata eta hirurtekoak, bi aparteko soldatekin batera, 2011ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearekin ez datozela bat. Kontratazioei dagokienez, EAJk dio obren inguruko bi kontratutan egindako aldaketak azpimarratzen dituela txostenak.

**Bilduren erantzuna**

Bilduk gezurtatu egin du, EAJk dioen moduan, Atxondokoa Durangaldeko herri zorpetuena dela. Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenaren inguruan EAJk "intentzioz" egindako adierazpenak direla kritikatu du Rosa Elizburu alkateak, eta kontuetan arazo "larririk" ez dutela aurkitu azaldu du. "Zorpetutako udaletxe bat gara, hori ez dugu inoiz ezkutatu, baina zorpetuagoak badaude. Gogoratu nuke kredituak arrastatzen gabiltzala 2004tik, EAJren sasoitik". Elizburuk gaineratu duenez, 2010ean kontrol eta doikuntza neurriak jarri zituen martxan udalak. 2011, 2012 eta 2013 positiboan itxi ditugu, eta 30 egunera ordaintzen ditugu fakturak. Datuak publikoak dira, eta edonork ikusi ditzake".

**> BERRIZ****478 kilo janari batu dira beharra duten berriztarrentzat****> AMAIA UGALDE**

Pasa den azaroan, Berrizko den-detan egindako kanpainan 478 kilo elikagai batu ziren herrian, gizarte-bazterkerian dauden herritarrentzat. Gaur egun 25 familiak jasotzen dute laguntza mota hori.

Saharako karabana solidarioarako bilketa ere egin dute herrian, eta Tinduferra (Aljeria)erroteko 630 kilo elikagai batu dira.

Elikagaien bilketa Berrizko elkarte ugari batzen dituen Ongizate, Kooperazio, Inmigrazio eta Osasun Batzordeak antolatu

Gaur egun Berrizko 25 familiak jasotzen dute elikagai bankuko laguntza

du. Bertan daude Gure Izarrak emakumeen elkarteak, Caritas, herriko eskolak, gurasoen elkarteak, Gure izerdia nagusien elkarteak, Berriz ERE, etorkinen ordezkariak eta hainbat familia.

**Kirol proba berezia**

Elikagaien bilketekin lotuta, datorren apirilera ekimen berezi bat prestatzen dabilzala aurreratu dute udal batzordeko kideek. Kirol proba bat izango da, eta parte hartzeko herritarrek elikagai bana entregatu beharko dute, herriko elikagai bankurako.

**> MALLABIA****Mozorro lehiaketa eta erromeria martxoaren 4an**

Ansorregi, Larrañaga eta Lutxurdioren erromerian etenaldia egin, eta mozorro onenak sarituko dituzte

**> JONE GUENETXEA**

Mallabiko Udaleko Kultura Batzordeak mozorro lehiaketa antolatu du martxoaren 4rako. 12 urtetik beherakoek, bakar-ka edo bikoteka, 60 euroko sari nagusia eta 30 euroko bigarren saria jaso dezakete. Taldeka, berriz, 120 euro eroango dute irabazleek, eta 60 bigarren taldeak.

12 urtetik gorakoentzako ere sariak aurreikusi dituzte. 100 euro lehenengoari eta 50 euro

bigarrenari, bakarka edo bina-ka lehiatuz gero. Taldeka, irabazleak 200 euro jasoko ditu, eta bigarren taldeak 100 euro.

Txokolatadan bilduko dira Mallabia I kirol etxean, 17:00etan. 17:30etik 20:30era erromeria doinuekin giroa alaituko dute Ansorregik, Larrañagak eta Lutxurdiok. 19:00etan etenaldia egingo dute mozorro lehiaketako irabazleak nortzuk diren esateko.

**> IZURTZA****Txitxiburduntzi Eguna egingo dute domekan**

Udaletxe pareko plazan piztuko dute sua; janaria eta edaria herritarrek eurek eraman beharko dute

**> JOSEBA DERTEANO**

Urteroko ohiturari jarraituta, domekan Txitxiburduntzi Eguna ospatuko dute Izurtzan. Euririk ari ez bada, plazan egingo dute sua, eta bestela ondoko pilotalekuan hartuko dute aterpea.

Udalak ipiniko du sua, eta janaria eta edaria, aldiz, herritarrek eurek ekarri beharko dute, janaria sutan erretzeko makiltoarekin batera. 12:00ak inguruan udal langileek ikatz begetalez eta egurrez egindako suagaz hasiko dute Txitxibur-

duntzi Eguna. Normalean, eguraldia lagun bada, jende dezente batzen dela diote udal langileek. Herri ingurutik egindako paseoaren osteko mokadu moduan erabiltzen dute ekimena izurtzar askok. Gehienek txorizo otartekoa prestatzeko ohitura izaten dute, baina batzuek urdaiazpikoa eta solomoa ere eramaten dituzte. Gehienetan, ekimena luzatu egiten da, eta plaza inguruan eta ondoko tabernan jai giroa 14:30 ingurura arte mantentzen da.

MATERIAL DE CONSTRUCCIÓN  
**MACOBER**

Eraikuntzarako materiala  
**MACOBER**

Zeramika eta gresa

Eitua Industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

Solaguren kalea, 3  
Tel.: 946 814 474  
Faxa: 946 215 374  
E-mail: urtiaga.sl@terra.es  
MATIENA  
ABADIÑO

**urtiaga**  
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZI,  
BEROGAILU, AZULEJU, ZOLADURA,  
TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI  
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Bulegorako ziguiluak  
Fotolitoak

**Betikoak**  
flexografía

946 202 241  
Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA

# ► Berbaz

Itziar Irazabal | Bizkaiko Medicus Mundiko presidentea | Iurretarra da

## “Lankidetzaren arloa momentu gogorak bizitzen dabil; proiektu asko desagertu dira”

Lehenengo bider 1995ean joan zen kooperante Itziar Irazabal. Ordutik hona lankidetzaren arloan dabil. Iazko martxotik Medicus Mundiko presidentea da; lagun baten bitartez hasi zen GKEan: “Horrela izaten da; lagun baten bidez sartu, eta harrapatuta geratu”.



### > AMAIA UGALDE

**Medicus Mundik medikuekin zerkusia duen GKE bat dela eman dezake, baina zerbait zabalagoa da, ezta?**

Orain dela 47 urte sortu zuten medikuek; orain denetarik dago. Osasun arloan lan egiten dugu, baina modu zabalean. Adibidez, ura, saneamendua, osasun sexual eta erreproduktiboa lantzen ditugu, eta hezitzaileak, injineruak, medikuak... denetarik dago. Azkenean, bizitza hobetzea da helburua, osasun arloa hobetuta. Pentsatu ohi da Afrikan edo Hego Amerikan jendea gaixotasun arraroen ondorioz hiltzen dela, baina behar-rakoagaz ere hiltzen da jendea. Hemen, txorrota zabaldu, eta ur edangarria eta kalitatezkoa daukagu; ez gara konturatzen zelako zorrea daukagun. Horrek ez dauka preziorik. Hiltzen den jende asko eta asko uraren kalitate txarragatik hiltzen da.

**Afrikan eta Erdialdeko Amerikan daukazue lankidetzaren proiektuak.**

Afrikan, Ruandan eta Kongon, eta, Erdialdeko Amerikan, Hondurasen eta Guatemalan. Normalean prozesu luzeko proiektuak izaten dira. Ez dugu larrial-

dietan lan egiten. Beno, *Mitch* urakana izan zenean han egon ginen, eta lan egin genuen, baina ez gara gai, adibidez, ospitale bat 48 orduan muntatzeko.

**Hemen ere egiten duzue sentibilizazio lana.**

Gure ustez, gauza bi daude hor. Hegoaldearekin lan egin behar da euren egoera aldatzeko, baina hemen ez badugu gure pentsamoldea aldatzen, alferrik da. Azken finean, Afrika eta Hego Amerika dauden moduan daude, gure biltegiak izan direlako urte luzez. Kongo, adibidez, oso-oso herri aberatsa da, baina miseria hutsean bizi da. Bertan ateratzen den guztia Europara joaten da. Han dago koltan minerala, mugikorraren txipak egiteko, eta diamanteak ere badaude. Hemen ez badugu pentsamoldea aldatzen, jai daukagu.

**Sexu eta ugalketa osasunaren arloa asko lantzen duzue.**

Bai, batez ere Erdialdeko Amerikan. Han asko dira nerabeen arteko haurdunaldiak, eta laster Guatemalan ikerketa bat hasiko dugu horren gainean. 12-13 urteko neskatilak haurdun egoten dira, askotan intzestuagatik. Arazo handia dago familietan;

“

*Hegoaldearekin lan egin behar da euren egoera aldatzeko, baina hemen ez badugu pentsamoldea aldatzen, alferrik da”*

“

*Gizarte partaidetzaren dela-eta, inbidia pixka bat pasatzen dut Erdialdeko Amerikara joaten naizenean”*

matxismoa edo familia barruko indarkeria handia da. Gainera, inpunitate handia dago. Iaz, Guatemalan 1.000 emakume hil baziren, kondenatuak lau izan dira. Nuevos Horizontes elkar-

tearekin egiten dugu lan, emakumeei aterpetxeetan babesa emateko. Hondurasen ere beste aterpetxe bat daukagu. Arlo horretan, Euskal Herrira beste mota bateko indarkeria heltzen da, emakumeei, gizonak, eta, batez ere, nerabeek sufritutakoa: indarkeria sinbolikoa. Komunikabideetako mezuak, estereotipoak, edertasun kanonak... Horren gainean ikerketa oso interesgarria egin dugu. Harrituta geratu nintzen; orain dela 25 urteko estereotipoak daudela ikusi dugu.

**Egungo egoera ekonomikoak zelan eragin dio lankidetzari?**

Oso txarto. Lankidetzaren sektorean diru-laguntza guztiak jausi dira. Politikariek oso ondo egin dute zera esanda: “Zelan lagunduko diegu Afrika edo Erdialdeko Amerikako pobreei, hemen ere pobreak badauzkagu?”. Hori ez da horrela. Aurrekontuak beste ikuspegi batez prestatuta, dirua atera daiteke. Pobreak pobreen kontra jartzen dituzte. Lankidetzaren sektoreak momentu gogorak bizi ditu, eta proiektu asko desagertu egin dira. Eusko Jaurlaritzak orain dela lau urte 50 milioi bideratzen zituen lankidetzara, eta orain 10 milioi in-

guru. Hemen ere laguntza behar da, horrekin ados gaude. Lankidetzaren munduan lanean gabil-tzanok urte askoan entzun dugu “ez dezagun arraina eman, arraina jasotzeko kanabera baino”. Erakundeek ez dute bestelakorik finantzatu hegoaldean, eta, orain, hemen egiten dabilzan bakarria hori da. Nik uste dut jantoki sozialak egon behar direla hemen, baina horri beste plan batzuekin laguntzen ez bazaio, jendeari lana emanda, adibidez, ez dugu ezer lortuko. Kanpora bideratu behar izan denean erraz esan dute, “ez eman jatekorik”. Baina Afrikan jan barik ezin da lanik egin.

**Guatemalan eta El Salvadorean izan zara abenduan. Zer moduz?**

Ondo. Guatemala aurrerantz doan herrialde bat da. Proiektuak astiro-astiro aurrera doaz. El Salvador itzela da gizarteari eta herri mugimenduei dago-kienez; Erdialdeko Amerikan orokorrean ikusi daiteke hori. Indarra eta aurrera egiteko gogoia daukate, hemen geroago eta gutxiago daukaguna. Gizarte partaidetzaren inguruan inbidia pixka bat pasatzen dut Erdialdeko Amerikan.





# JATETXE GIDA

**ÑAM!**

## MENU BEREZIA

Sarrerakoak (2 aukeran)  
Entsalada  
Patata frijituak  
Zatitutako txuleta errea  
Postrea  
Ogia eta edaria

**60€**  
**bikoteko**  
(BEZa barne)



## JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ  
Tel.: **946 824 077**

Karta. Txuleta errea.  
75 lagunentzako jangela.

**ÑAM!**

## PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ  
Tel.: **946 826 246**

Eguneko menua. Karta. Domeka,  
astelehen eta martitzen gauean itxita.

**ÑAM!**

## PLATERUENA

Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4  
Tel.: **946 030 300**

Eguneko menua astelehenetik  
zapatura. Taldeentzako menu adostuak.  
Askariak.



## Profesional onenak zure zerbitzura!

Atal honetan agertu gura  
badozu deitu 946 816 558 zenbakira

**SEI HANKAKO MAHAIA**
**GOIZTIDI DIAZ**

EAJ


**ATEZ ATE, UDALERRIZ UDALERRI?**

Berau dogu azken aldia EAJkook, eta hainbat eta hainbat herritarrok egiten dogun galdera. Gipuzkoako Lurralde Historikoa gertu dauka gure eskualdean, eta inguruari begiradaxo bat emoten ohituta gagozanok harriduraz ikusten doguz hondakinekaz gure albokoan agintariek herritarren artean sortu daben gatazka.

Harira etorriko naz, irakurle maitea. Hurrengo asteetan abian jarriko da gure herrian, Tokiko Agenda 21eko prozesuaren muinean, hondakinei buruzko foroa. Horretara, lantalde zabala eratu nahi da, ahalik eta ekarpenik gehienekin, parte-hartzerik zabalena bermatuz, hain garranzitsua eztabaidatu eta hausnartzeko, eta, jakina, ondorioak eta proposamenak plazaratzeko. Gaia bihurtzen da, eta merezi dau prozesu sakon, serio eta arduratsua egitea, tentazio politikoak saihestuz.

Alderdiok, alabaina, gure proposamen propioak daukaguz, logikoa danez. EAJren kasuan oso era argian defendatu izan dogu bosgarren edukiontzia, eta apustu sendoa egin dogu herritarren informazioa, formazioa eta (adin nagusikoak garenez), hausnartu ondoren, parte-hartze boluntarioa sustatzeko. Kontrara, Bilduren eredu oso bestelakoa da, atez ateko eredu, hain zuzen. Indarrean dago jada Gipuzkoan esperientzia. Ez da ekimen teorikoa, laborategiko saiakera abstraktua, baizik eta herritarren beren-beregiko kontraktasuna sortu daben ezarpena, salbu eta Bilduko gobernu taldeak gehien-go nahikorik ez daukan udaletan, Donostian, adibidez. Eta kezkatuta gagoz, zelan ez, gure Udalerriko azken plenoan Ezker Abertzaleko ordezkari batek zaborra biltzeko euren eredu iragarri ebalako, hau da, atez ateko eredu gipuzkoarra Durangon ezartzeko planik ete daben ardurak. Gipuzkoan sorturiko arazoa gure eskualdera ekarri gura ei dabe. Horrexegaitik, ezarpenen gainetik, herritarren borondateari jarraiki, hauxe galdetu nahi dogu: Atez ate, udalerriz udalerriz? Atez ate, halabeharrez? Ez, eskerrik asko

**Jasangarritasun globala**

Krisia hasi zenetik, jasangarritasuna hitza gero eta gehiago entzuten dugu gure egunerokotasunean. Kontzeptu barri bat ote da? Modan jarri da? Edota emon beharreko urratsen oinarria da?

Nire gizaratean askotan entzuten dut "Basque country" marka beste batzuk baino marka indartsuagoa dela. Automozioan edo makina erremintaren inguruko berrikuntza datza EAeko hazkundeak? Ez dut uste krisia ekonomikoa denik soilik, energetikoa eta ekologikoa ere badelako. Beraz, industriaren eta teknologiararen inguruan garatu behar ote dira berrikuntzen ardatzak?

Erainkuntzaren munduan amaitu nuen. Ikasketen ostean teknika omen naiz, baina ez dut ia esperientziarik.

Leipzigeko eta Toledoko printzipioek Europako hirien eraldatze prozesua dute eredu, eta jasangarritasuna, noski. Eraikinen eraberritzea, espazio publikoaren birsorkuntza eta hiri partaide-tza dira, besteak beste, gutun horien oinarriak.

Bestalde, Espainiako Estatuan, 2013ko ekainean, etxebizitzaren energia kontsumoa murrizteko eta ziurtagiri energetikoak bultzatzeko asmoa zuen legea jarri zen martxan. San Fausto berri-tuan, eta etxebizitza zein lokalen salerosketetan kalifikazio energetikoaren etiketa ikusi dezakegun moduan.

Hiri partaidetzaren inguruan, Durangoko trenbidearen lurperaketak uzten duen aukera urbanistikoaren diseinua herriko 4. DBHko neska-mutilek egin dute, tekniko batzuek jarritako irizpedeetan oinarrituta. Proiektua ikusgai dago Interneten, eta udaletxean eztabaidatuko dute zenbateraino gauzatuko den; bestela zertarako balio du hiri partaidetza honek?

Irizpide polit, anitz eta jasangarriak plazaratzen dizkigute, baina neure buruari galdetzen diot ea hau zer den: etorkizun jasangarri-rako ematen ari diren lehenengo urratsen hasiera, ala gure inguruan motor ekonomikoa handia izandako eraikuntza sektoreari epe puntual baterako bultzada edo nolabaiteko laguntza emateko urratsak?


Jasangarritasunaren inguruko kontzeptuak ez dira bost edo hamar urtera begira landu behar, etorkizunera begira baizik. Gure kontsumo eredu, herritarren arteko harremanak, elikadura sistema, herrien hazkunde urbanistikoa, eta beste kontzeptu garrantitsu mordo bat mahaiaren gainean jarri beharko genituzke jasangarritasunaren inguruan berba egiten hasteko.

Gazte moduan, zer da gehien kezkatzen nauena? Etxebizitza, nire lau paretak. Nire herrian mila pisu baino gehiago daude hutsik, eta berriak eraikitzen jarraitzen dute. Zelako hazkunde urbanistikoa izango du nire herriak? Jasangarria?

Promotore libreak, babes ofizialekoak eta kooperatibak aurkitu ditzakegu. Baina zer da kooperatiba bat? Interes interesatua daukan kudeaketa enpresa bat kooperatibista bila ibiltzea etxebizitza eraikin bat eraikitzeko? %10-12ko etekina lortzeko?

Nik etxebizitza kooperatiba beste modu batera ulertzen dut. *Cohousing* terminoarekin ezagutzen dena globalizaziotik datorren terminoa da. Horren alde txarrak denok ezagutzen ditugu, eta nire ikuspuntutik gure auzorako, herrirako zein gizarterako onuragarriak direnak kontuan izan behar ditugu.

Andoni Garcia (Durango)


**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**

Bixente Kapanaga 9, 48215

astekaria@anboto.org

- Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
- Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

**-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**
**Laguntzaileak:**


Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du


 EUSKO JAURLARITZA  
 GOBIERNO VASCO  
 Kultura Sailak  
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
 diruz lagundutakoa

**anboto**  
 komunikabideak  
 Bixente Kapanaga, 9  
 48215-lurreta  
 (Bizkaia)  
 Tel.: 94 681 65 58  
 Erredakzioa:  
 94 623 25 23  
 Publizitatea:  
 94 621 79 02  
 publi@anboto.org  
 2014ko otsailaren 21a,  
 12. urtea - 534. alea

**Zuzendaria:**

Jone Guenetxea.

**Administrazio burua:**

Itziar Belar.

**Administrazioa:** Miren Abasolo.

**Publizitatea:** Goretzi Alonso,

**Erredakzioa:** Aitziber Basauri,

**Itsaso Esteban, Joseba Derteano.**
**Markel Onaindia, Amaia Ugalde**
**eta Maialen Zuazubiskar.**
**Maketazioa:** Eider Alberdi.

**Zuzentzailea:**

Jon Ander Urkiaga.

**Argazkilaria:** Kepa Aginako,

Zalao Fuertes.

**Anari Alberdi** | Azkoitia, 44 urte | Musikaria

# “Libre, momentuak eskatzen digunaren arabera ariko gara”

Gaur, Durangoko Plateruenean joko dute Napoka Iria taldeak eta Anarik; azken urteetan aldamenen izan dituen musikariek lagunduko diote Anariri

**> ITSASO ESTEBAN****Zelako kontzertua izango da gaurkoa? Zure ibilbide osoko kantak joko dituzue?**

Bai, Durangoko Azokan *Bidea eta denbora* zuzeneko diskoa kaleratu genuen arren, Plateruenean ez da zuzeneko diskoa aurkezteko kontzertu bat izango. Disko horretako kantak helduleku ona dira, baina zuzeneko disko horretan ez dauden kantak ere joko ditugu. Libre,

momentuak eskatzen digunaren arabera ariko gara. Beti bezala saiatuko gara kantei, soinuari edo moldaketei buelta bat ematen. Zuzenean aritzeko oso gogotsu gaude.

**Zer dela-eta ez zarete zuzenean aritu izan hilabeteetan?**

Duela urtebete inguru taldekide bati beste konpromiso batzuk sortu zitzaizkion, eta gertatu egin ginen pixka batean. Ni

ere beste lan batzuetan ibili naiz. Gaztetan, noizean behin egoten ginen denbora batez jotzeke. Orain, sortzen diren aukera guztiak aprobezatu gura ditugu: oso ondo pasatzen dugu, gustura jotzen dugu, jendea etortzen da... Kristoren plana da guretzat kontzertu bat izatea.

**Hala ere, agenda gehiegi bete-zearen zale ere ez zarete. Aukeratzea gustatzen zaigu.**

Esaterako, Durangon joz gero, ez dugu Bilbon joko. Jendea asko mugitzen da, eta saiatzen gara hori kontuan hartzen zuzenekoak lotzerakoan. Ez dugu nahi jotzeagatik jo, erakartzen gaituzten lekuetan aritzea da gura duguna. Dena den, azken aldian asko jo dugula esango nuke. *Irla izan* diskoa kaleratu genuetik kontzertu piloan eman ditugu. Kontua da, disko gutxitxo kaleratzen dugula, eta birak dilatatu egiten ditugula denboran. Baina nahikoa jotzen dugu.

**Beste talde batzuek bezain bira kontzentratuak ez dituzue egiten, beharbada?**

Egia da hori, baina nik uste oihartzunak ere sortzen duela sentazio hori. Guk kontzertua eskaintzen dugunean, batzuetan, ez da inon jakitera ematen. Bakoitzak bere marketing estrategiak dauzka, eta nik beti pentsatu izan dut atera behar dela ateratzen dela. Saiatzen gara zabaltzen, baina pentsatzen dut jendeak taldea jarraitu behar duela, eta ez taldeak jendea. Gauzek euren erritmoa daukate, eta uste dut zuk gauzak egiten badituzu, zure jarraitzaileei ailegatzen zaizkiela. Dotorezia apur bat ere behar dela uste dut.

**Urteotan aldamenen daukazun musikariek zatoz?**

Bai, oso fidela naiz horretan. Maite Arroitauregi Mursegoren ordez, Mariano Hurtado dago teklatuetan, baina bestela betiko lagunekin nabil.

**Bazabiltza idazten, diskoren baterako ideiak lantzen?**

Bai, banabil, beti nabil... Baina

horretan Santo Tomasen eskolako naiz: eginda ikusi arte nahiago dut ezer ez esan. Sukaldean zabilzanean bezala da hau: erosketak egin eta osagai guztiak edukita ere, baliteke prestatu gura duzuna uste zenuen bezala ez ateratzea. Baina saiatuko gara.

**Berezia al da Durangoko Plateruenean aritzea?**

Durangoko Kafe Antzokira joan garen bakoitzean alerta klimatologiko bat egon da, *Teleberrin* agertzen diren horietakoak. Gogoan dut *Irla izan* aurkeztu genuenean, izotz ekaitz baten iragarpena zegoela. Alertak kontuan hartu, beraz. [Barre].

**Napoka Iriak ere joko du gaur. Gustuko duzu egiten dutena?**

Oso aukera ederra da eurekin aritu ahal izatea, eta poz handia ematen dit. Uste dut Napoka Iriarenak eta gure bideak lekuren batean bat egiten dutela.

**Zuek zabalduriko bidean doazela esatea gehiegitxo?**

Horrelako konparazioak ez ditut batere gustuko, sinplistik iruditzen zaizkit. Badirudi emakumeen influentziak beste emakume batzuk bakarrik izan daitezkeela. Esan nahi dut, gizonenezko musikariek badirudi ez dutela inoiz emakumeen eraginik izaten. Mirenen ahotsa oso gustuko dut, eta bere kantatzeko erak ez dauka nirearekin zeri-kusirik: bere melodiak gehiago datoz bluesetik edo jazzetik. Gaur egun eskal musikari egiten diren gauzarik interesantenetan emakumea dago: Mursego, Saioa, Belako, Zea Mays...

## Napoka Iria: “Kanta berriak jotzeko gogotsu geunden, eta asko disfrutatzen dugu zuzenekoekin”

‘Arnasten ikasteko berriz’ aurkeztuko du Napoka Iriak gaurko kontzertuan

*Arnasten ikasteko berriz* diskoa han-hemen aurkeztzen dabilta Napoka Iria taldeko Miren Narbaiza eta Ander Mujika. “Oso pozik gaude; kanta berriak zuzenean jotzeko oso gogotsu geunden, eta asko disfrutatzen gabiltza zuzenekoekin”.

Azaroan Plateruenean Kantuaren Kantoia berbaldu musikatuetan azaldu zuten, beste-lako lanak utzi, eta buru-belarri Napoka Iria proiektuan lanean jarduteko hautua egin dute taldekide biek. Ander Mujikaren berbetan, “konbentzitutak gau-

de ondo egin dugula. Oraingoan, behintzat, emaitza ona izan da, eta oso gustura gabiltza”. Asko dihardute euren kantuak zuzenekoetan eskaintzen, “ia-ia ahal duguna baino gehiago”, Mujikak azaldu duenez. “Hilabeteetan sei-zazpi kontzertu dauzkagu, eta Euskal Herrikanpo jotzeko aukera batzuk ere sortu zitzaizkigu”.

Kontzertuak eta bestelako proiektuak uztartzen ditu Napoka Iriak: beste talde batzuekin kolaboratzen, dokumental baterako musika konposatzen,

eta tributo kontzertu bat prestatzen dabilta, esaterako.

Plateruenean azaroko Kantuaren Kantoian lortu zuena, “publikoagaz intimitate” puntua, bilatuko du gaur gaueko kontzertuan ere Napoka Iriak.

Durangoko Plateruenean gaurkoa *Arnasten ikasteko berriz* diskoaren aurkezpena izango da. Ander Mujika taldekideak azpimarratu duenez, “hain pozik gaude kanta berriekin ezen horietan zentratuko garen. Baina, noski, egon daiteke sorpresaren bat ere”.



## &gt; MUSIKA

## 'Celesta' diskoa aurkeztuko du Maria Coma katalanak bihar, Berrizen

Berlinen sorturiko kantek osatzen dute 'Celesta'

## &gt; ITSASO ESTEBAN

Bere pianoagaz eta *loop* izeneko tresna elektronikoagaz, talderik barik, bakarrik, ariko da Maria Coma musikari katalana, Berrizko Kultur Etxean, bihar. Otsailean, Kataluniako bi hiritan, Buenos Airesen, Zaragozan eta Madrilen kontzertuak eskaini eta gero etorriko da Berrizen jotzera. Martxorako, bost emanaldi gehiago ditu lotuta Comak bere herrialdean.

Urrian kaleratu zuen *Celesta* izeneko diskoa, kaleratu duen hirugarren diskoa, aurkeztu dihardu Maria Comak zuzeneko horietan. Aurreko *Magnolia* bezala, Amniotic Records diskoetxearekin plazaratu du lan berria. Negu batean, Berlinen sorturiko kantek osatzen dute *Celesta* diskoa: "Kanpoan elurra ari zuen bitartean, pianodun gela batean sortu nituen", azaldu du egileak. "Kantuetako bakoi-

Kataluniako Berguedá eskualdeko masia batean, gaez grabatu zituzten 'Celesta' diskorako kantak

Musikariak berak esaten duenez, "PJ Harveyren eta Chopin-en artekoa" da egiten duen musika

tza distantziatik nire bizitzan inportantea zela konturatu nintzen norbaiti dago eskainita".

Kataluniako Berguedá eskualdeko masia batean, gaez grabatu zituzten *Celesta* diskorako kantak. Bi hilabetez jardun ziren estudioan lanean, gaez, "jendea lotan dagoenean, eta dena lasaiago dagoenean, kantuek



Talderik barik ariko da Maria Coma Berrizko Kultur Etxean.

daukaten kutsu lasai eta erlaxatua har zezan diskoak".

Musikariak berak esaten duenez, "PJ Harveyren eta Chopin-en artekoa" da egiten duen musika. Baina konparazioak konparazio, "batez ere, Maria

Comaren soinua dauka". 2012an irabazi zuen Puig-Porret sariari esker Clavi-Nimbus izeneko instrumentua sortu dute disko honekin batera, Bartzelonako unibertsitateko soinu eskulturailerrean.

## &gt; LITERATURA

## Joseba Sarrionandiaren bizitzaz eta literaturaz aritu da Iturralde

Martitzenean, Durangoko Udal Liburutegian eskaini zuen Iturraldek berbaldia



Bete egin ziren entzuleentzat prestaturiko aulki guztiak.

## &gt; I.E.

*Sarri hitzez eta ahotsez*, Joseba Sarrionandia Iurretako idazlearen lanari buruzko ekimenaren lehenengo hitzordua izan zen martitzenean, Durangoko liburutegian. Besteak beste, Sarrionandiagaz 1977an, Bilbon, sorturiko Pott Banda literarioan kide eta lagun izandako Joxemari Iturralde idazle tolosarrak eskaini zuen martitzeneko berbaldia: Joseba Sarrionandiaren obraren inguruko zertaladak eskaini zituen. "Bere liburuak hor daude, eta zaila da ezer berririk esatea", hasi zuen berbal-

dia. "Baina uste dut, Sarrionandiaren obra esplikatzen, bere bizitzako esperientziak jardun behar garela, bere bizitzako esperientziak isla zuzena duelako bere liburuetan", adierazi zuen. Bere ustez Joseba Sarrionandiaren ezaugarri nagusiak zeintzuk diren azpimarratu zuen Iturraldek: euskararen aldeko apustua eta errebeldia.

Sarrionandiaren literatura gustuko duten hainbat herritarrek antolatu dute ekimena, eta datozen hilabeteetan jarraituko du egitasmoak. Martxoaren 12an eta apirilaren 2an, esaterako, Sarrionandiaren lanaren gaineko solasaldi bana izango da aukeran (izen-ematea: *sarri.joseba@gmail.com*).

Maiatzaren 9an emango dute ekimena amaitutzat, Plateruenean. Jendaurreko irakurketa egingo dute Kafe Antzokian.

**Figurantes**  
Ados Teatroa

Otsailaren 22an - 20:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia  
www.plateruena.net

OTSAILAK 21 - 22:30ean 8/10 euro  
ANARI+NAPOKA IRIA  
MUSIKA KONZERTUA

OTSAILAK 23 - 18:00etan DOAN  
AIKO ERROMERIA  
ERROMERIA

OTSAILAK 27 - 20:00etan DOAN  
BERBERTAN EHZ festibala /  
Azpeitiko KULTUR MAHAIA / Gasteizko Hala Bedi  
ELKARRIZKETAK BERTATIK BERTARA

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

## GEURE DURANGALDEA

JON  
IRAZABAL

Gerediaga  
Elkartea



## Memoria

Argentinatik etorri da notizia. Lur haretako epaile batek erabaki du Francoren garaian izandako basakeriak ikertzea eta epaiketara eramatea. Diligentzia horietan beste batzuen artean izen famatu bat ageri izan da: Gonzalez Pacheco *Billy el Niño*. Dirudienez oso maite zuen ostiak ematea, nahiz eta apaiza izan ez. Gertakizun horrek erreakzio interesgarriak sortu izan ditu. Batek baino gehiagok esan dute "benetan hiltzaile bat zen..." eta antzeko esaldiak. Beste batzuek telebistan ikusi dutenean haren "bezeroen" artean jipoiak jasotzen, adibidez, Paco Lobaton telebistako aurkezlea egon zela esan dute. "Kontxo! Denak ez ziren izan gorri zikin batzuk...", baina... betikoa... urrutiko istorioak hunkigarri ikusten ditugu, eta orduan galdera bat egiteko garaia heltzen da. Eta gure Durangaldean horrelako *Billyrik* sufritu beharrik ez genuen izan? Ba... bai, eta, gainera, hemen aritu zirenak ere oso basatiak eta kriminalak izan ziren.

2012an hil zen Hidalgo kapitain famatu baten bezeroek kontatzen dutenez, haren ongi etorriak gogoratzeak ziren. 1972ko otsailean etorri zen gure lurretara, eta bertako jaun eta jabe izan genuen 1976ko abendura bitartean. Gogortzeak dira bere agindupean izandako frankismoaren azken salbuespen-egoera, 1976ko Urkiolako Euskal Jaiak, Durangoko San Fausto jaiak eta abar luze bat. "Hil da..." esango du batek baino gehiagok, baina bere lanen berri eman gabe, eta... berarekin "lan" egin zutenak? Horrelako gaiak ez dira ikertu behar? Ez dakit... Oso korapilatsu ikusten dut, baina pentsatzen dut gure herriko historiako kapitulu hau memoriak ez duela galdu behar. Gerra eta gerraosteko istorioak galdu izan ditugu...

Garai horretako gertakizunak ere bai?

**Arrike**  
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 946 201 893  
Faxa: 946 816 403

# ALKIMAX

Alquilamos soluciones



Eitua industrigunea, 71C • 48240 BERRIZ (Bizkaia) • 94 682 45 50 • [alkimax@alkimax.com](mailto:alkimax@alkimax.com)

## LORAZAINTZA



Belarra mozteko makina (eserlekuarekin)



Hostoentzako haize-makina



Area



Sasiak garbitzeko mailu-makina



Biobirringailua

## ERAIKUNTZA



Plataforma jasogailua



Minidumperra



Mini zamagailua



4 x 4 dumperra birakaria eta bere kabuz kargatzekoa



Mini hondeagailua 1.800kg

## GARBIKETA



Garbigailuak



Xurgagailuak



Lur-garbigailuak



Kale-garbigailuak

[www.alkimax.com](http://www.alkimax.com)

&gt; JAIALDIA

## Dozena bat musika talde zuzenean entzuteko aukera dakar Kalerarock elkartasun jaialdiak

Denetariko doinuak lantzen dituzten taldeek joko dute Kalerarock jaialdiaren hirugarren edizioan



Hamar urteren ostean 'Astiro' diskoagaz berragertu den Urtz taldea ariko da, besteren artean.

**\* Durangoko Landako Gunean. Ateen irekiera eta kontzertuen hasiera 11:00etan**

**ESNE BELTZA REINCIDENTES KAUTA BOIKOT GOSE**

**ITZIARRAREN SEMEAK ZE ESATEKI! ARKADA SOCIAL URTZ TRIKIZIO**

**MCONAK**  
Karpan:  
**DJ BULL**  
**ETA DJ TXO**

### > ITSASO ESTEBAN

Kalerarock elkartasun jaialdiaren hirugarren edizioa hartuko du Durangoko Landako Guneak, bihar, egun osoan. Milaka lagun batuko dira Landako Gunean euskal preso eta iheslarien eskubideak aldarrikatzeko, *Gure indarrarekin batera* lelopean.

Goizeko hamaiketan zabalduko dituzte Landako Guneako ateak, eta ordu horretan hasiko dira kontzertuak. Dozena bat musika talde ariko dira jaialdiagaz bat egin, eta euren musika eskaintzen.

*Azken eguna* zuzeneko diskoa kaleratu zuenetik hamarkada bat igarota, iaz *Astiro* izeneko diskoa kaleratu zuen 1988an sorturiko Urtz taldeak, Sevillako Reincidentes rock taldeak, Esne Beltzak, iaz ere jaialdian parte hartu zuen Arcada Socialek eta

Karpan amaituko dute eguna: bertatik eskainiko dute euren musika hautaketa Bull eta Txo DJek

Gose taldeko arrasatearrek joko dute Durangon, zuzenean, bihar.

Denetariko musika gustuei lekua egin diete Kalerarock jaialdiaren hirugarren edizioaren kartelean. Besteak beste, jaialdiaren aurtengo kanta egin duen McOnak Lekeitioko taldea ere ariko da Durangoko jaialdian. Talde horrek Xabi Solano, Sorkun eta Hodei Beitiagaz sorturiko bideoklipa ere aurkeztu dute antolatzaileek.

Kalerarock jaialdiaren aurtengo kanta egin duen McOnak Lekeitioko taldeak ere joko du Durangon

Milaka lagun batuko dira elkartasunezko jaialdian euskal preso eta iheslarien eskubideak aldarrikatzeko

Lehenengo urtean jaialdia arratsaldean antolatu zuten, baina jendearen erantzuna ikusita, hurrengo urteetan egun osorako eskaintza luzatzeari ekin dio Kalerarockek. Karpan emango diote egunari amaiera: bertan Bull eta Txo DJen kanta aukeraketa izango da dantzagai.

&gt; MUSIKA

## Rock gogorra, metala, eta post-hardcorea entzungai Plateruenean

Meido eta Quaoar bilbotarrak, eta Bordeleko Sun Prechers Durangon ariko dira, datorren barikuan

### > I.E.

Rocketik abiatu arren, musika talde batek urratu ditzakeen norabide anitzen erakusle den kartela osatu dute Durangoko Plateruena Kafe Antzokian, otsailaren 28rako. Hiru musika talde dira egun horretan Durangoko Plateruenean oholtzatik ariko direnak.

Batetik, rocka abiapuntu hartuta, musikak eskaintzen

dituen aukeren aniztasunaren erakusle, Bilboko Quaoar taldea izango da entzungai, Durangon. Bestetik, nahiz eta Bilbon sorturikoa izan, post-hardcore doinuak jorratzen dituen Meido taldea ere gonbidatu dute Platerueneko hitzordu horretara. Eta, hirugarrenik, Bordeletik (Frantzia) Sun Prechers taldea etorriko da, otsailaren 28an, Plateruenean jotzera.



Quaoar taldea.

&gt; TOPAKETA

## Euskal kulturgintzaren kezkez eta helburuez: Guk gEURE Kultura

Otsailaren 27an, Durangoko Landako Gunean izango da egun osoko topaketa

### > I.E.

Durangoko Landako Gunean ipini dute hitzordua Guk gEURE Kultura ekimena bultzatu duten eragileek, iritzi eta proposamen truketarako. Durangoko Azokako Ahotsenea sortzaileen gunea, Eskena (Euskadiko Produktzio Eszenikoaren Enpresa Elkartuak), Karraskan sortzaileen elkarteak, Kultur Live (zuzeneko musika eskaintzen duten Euskal Herriko areto pribatuen elkarteak) eta MIE (Musika Industriaren Elkarteak) dira Guk gEURE Kultura bultzatzen dihardutenak.

Otsailaren 27an, 09:30ean hasi eta 18:00etara arte jardungo dira parte hartzaileak kulturaren egungo egoeraren diagnostia egin, eta etorkizunari buruzko kezka eta helburuak elkarrekin konpartitzen.

“Guk kezka bizia dugu euskal kulturaren egoera dela-eta, zerbait egin nahi dugu, eta martxan gaude dagoeneko”, diote Durangoko eguneko topaketaren bultzatzaileek. Euskal kulturaren beharrianak, aukerak eta

erronka estrategikoak zeintzuk diren adostu gura dute Landako Guneako topaketa horretan.

Euskal Herrian kulturgintza bizi duten norbanakoak elkartzera eta bakoitzak bere eguneroko jardunetik ekarpenak egitera gonbidatu dituzte hitzordua antolatzaileek. Sorkuntzaren arlo guztietako artistak [geukguneirekia@gmail.com](mailto:geukguneirekia@gmail.com) helbidean izena ematera deitu

Ahotsenea, Eskena, Karraskan, Kultur Live eta MIE elkarteak dira ekimenaren bultzatzaileak

“Egungo egoera larriarentzako konponbide emankorrek adostu” gura dituzte Landako Gunean

dituzte antolatzaileek. Herri mugimenduko zein arlo publiko edo pribatuko kultur emanaldien antolatzaile eta bitartekariak, horien hartzaile aktibo eta kezkatuak, hezkuntzako eragileak eta komunikabideetako langileak ere gonbidatu dituzte topaketan parte hartzera.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, “gune irekia” deritzon metodologia baliatuko dute solasaldietan. “Iritzi truke zabal eta sakon bat” bultzatu gura dute, eta “egungo egoera larriarentzako konponbide emankorrek adostu”. Horretarako, “talde sormena, parte-hartzea, emankortasuna eta autoeraketa” erabili gura dituzte.

Kulturgintzari loturiko denetariko gaiak eta ekintzak proposatu eta abiaraztera gonbidatu dituzte parte-hartzaileak. Eta gai horien inguruan sakontzeko, 90 minutuko solas tarteetan antolatuko dituzte jardunak. Landako Guneako topaketa horretako solasaldietako ekarpenen idatzizko txostena osatuko dute egun bertan.

# Kirola

&gt; TXIRRINDULARITZA

## “Txilen bizi izan ditudan gauza batzuk surrealistikak izan dira, pelikuletakoak”

Mikel Bizkarra mañariarra talde barik geratu daiteke datozen egunetan babeslerik aurkitu ezik



Mikel Bizkarra Mañariarra da egunotan, eta gogor entrenatzen jarraitzen du.

## &gt; JOSEBA DERTEANO

Euskadi Fundazioaren etorkizuna ezbaian zegoenean bizitako une estuak errepikatzen ari zaizkio Mikel Bizkarrari. Orduan, Txileko PinoRoad taldearen eskaintza onartzea erabaki zuen, eta abentura berriari ekiteko ilusioz beteta zegoela adierazi zuen. Baina paradisuaz ziru-diena, infernu bihurtu da. Inork ez daki taldeko buru Juan Pablo

Pino non dagoen. Mugikorra itzalita du. Taldeko 17 kideak babeslerik gabe geratu dira, eta azpiegitura guztiak prest dituen proiektua bertan behera geratu daiteke babesleak lortu ezik.

Gaia orain eman da argitara, baina susmoak aurretik zetozen. Adibide konkretuetan sakondu barik, denboraldi-aurrean Txilen eman zituzten egunak (urtarril amaieratik

otsailaren 5era) “surrealistak” izan zirela adierazi du Bizkarrak: “Laugarren edo bosgarren egunetik aurrera dena apur bat narrasa izan zen. Egoera txarra zen, eta bizikletan ia ibili ere ez ginen egiten. Juan Pablo Pinok bere modura ulertzen zuen txirrindularitza, eta gure ikuspegiagaz alderatuta, oso desberdina zen. Bizi izan ditugun gauza batzuk pelikuletakoak izan dira.

Surrealistak. Kamera ezkutu bat zegoela ematen zuen”.

Gutxienez, taldea Andres Canobas eta Fran Reyesen eskutik hartu zuen Pinok orduan. Talde berria Txileko txirrindulariekin ez ezik, Espainiako batzuekin ere osatu gura zuen, eta bide hori lantzeko ardura zuten Canobasek eta Reyesek Espainian. Joan zen eguaztenean zen Pino Espainiara etortzekoa, baina ez zen etorri, eta harrezkero “telefonoa itzalita du, inork ez daki non dagoen”.

Hainbat arrazoi medio, aste honen amaiera ipini dute proiektuaren etorkizuna bermatzeko mugari legez, BESTEAL proiektua desagertu egin daiteke: “330.000 euro inguru behar ditugu; txirrindulariak badaude, bizikletak ere bai, azpiegiturak baditugu, baina dirua falta zaigu”.

Egoera latzari itxaropenagaz begiratzen dio Bizkarrak: “Emozio fuertekak dira, baina honek etorkizunari begira gogorago egingo nau. Alde ona ikusi gurago dut, dena ez da txarra izango”. Egunotan Mañariarra dago, eta kontua argitu bitartean entrenatzen dihardu: “Entrenatu ezean beste aukerarik ere ez da etorriko. Burua lasaitzen laguntzen dit”.

## &gt; J.D.

Hirugarren Mailan diharduen Elorrioko Buskantza taldeak eta Bigarren B Mailan jokatzen duen Debabarrenak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute. Areto-futbola indartzeko indarrak batzea da hitzarmenaren helburua, talde biek dituzten azpiegiturak eta baliabideak bata bestearen zerbitzura ipinita. Debabarrenako ordezkariak esanetan, “Durangaldean areto-futbolaren alde lanik gehien egiten duen taldeetako da Elorrioko Buskantza”.

Akordioaren arabera, Elorrioko jokalariei maila bat gora dagoen klubean jokatzeak aukera zabaltzen zaie. Era berean, talde nagusi baten artean entrenamendu saio bateratuak egingo dituzte, eta harrobia sustatzeko lankidetzan jardun dute. Buskantzak Debabarrenako hainbat azpiegitura ere erabili ahalko ditu: fisioterapeuta, nutrizionista... Debabarrena bigarren tokian dago Bigarren B Mailan eta igotzeko aukerak ditu.

## ADITUAREN TXOKOA



Eneritz Iturriaga

Txirrindularitza

## Krisia edo iruzurra?

Orain dela urtebete hasi ginen entzuten Euskaltel taldea dirurik gabe zegoela, eta Euskadi Fundazioak ere dirua behar zuela, aurrera jarraitzeko. Sasoi hartan, krisiak eraginda, gure euskal txirrindulari ia guztiak, lur jota, talderik gabe eta noraezean zeuden. Baita euskal txirrindularitzaren zale guztiok ere. Triste.

Baina urtea bukatu orduko, nork bere managerrarekin talde guztiari atea jotzen hasi ziren. Orduan agertu zen hala moduzko talde txiletar bat. Bertara hiru txirrindulari euskaldun batu ziren, eta baita beste hainbeste espainiar ere. Ilusioz beterik, maleta egin, eta Txilera joan ziren.

Eta bertan zer aurkitu zuten? Oraindik bizikletak prestatu gabe. Arropak bazituzten, aurkezpena ere egin zuten, eta managerra zela esaten zuena txirrindulari guztiarekin bertan argazkiak ateratzen. Baina etxera heldu eta hileko nominak pasatu behar zirenean, ez zegoen dirurik. Taldea UCIn inskribituta zegoen, baina ez zegoen nominarik, ez bizikletarik txirrindularientzat. Nola ulertu hori? Zer da hori, ordea? Egunak joan ahala, jakin genuen managerra omen zena, ez zela managerra, beste lagunen bat ei zela; eta txarrena da sponsorrak eman behar zuten diru guztiaren arrastorik ere ez zegoela! Ezta managerraren beraren arrastorik ere!

Gure euskaldunak, maletak hartu, eta burumakur etxera bueltatu dira. Ez dakite ezer, ez taldea aurrera irtengo den, ez entrenatu behar duten, ez zer gertatuko den. Hau ere krisia al da? Edo iruzurra? Non daude guri antzina erakutsi zizkiguten ohorea, leialtasuna, eta zuzena izatea? Non daude gaur egun horrelako pertsonak? Zelan baimendu daitezke iruzur horiek? Zigorrik gabe eurek nahi dutena egiten utzi behar zaie? Zer justizia daukagu? Zer pertsona klase bihurtu gara? Anbizioa? Iruzurra? Gezurra? Zer mundu da hau?

## &gt; ARETO FUTBOLA

## Areto futbola sustatzeko hitzarmena sinatu du Elorriokok Debabarrenagaz

Klub bien arteko baliabideak elkarren zerbitzura ipiniko dituzte



Elorrioko Buskantza taldeko Iker Saenz de la Cuesta azalpenak ematen akordioa publiko egin zuten egunean.

**Ibai Zabala** | Berriz, 26 urte | Pilotaria - **Roberto García Ariño** | Axpe (Atxondo), 63 urte | Pilotari ohia



Kepa Aginako

## *Ibai Zabalak galdetu eta Roberto García Ariñok erantzun*

Gaur egungo pilotaria iraganekoari galdezka ipini dugu. Zabalak García Ariño elkarrizketatu du

### > JOSEBA DERTEANO

Eskuin eskuan min du, eta Ibai Zabalak ez du asteburuan jokatu. Sendatzen den bitartean, kazetari lanetan ipini du 'Anboto'k. Roberto García Ariño Asegarceko intendentea elkarrizketatzeko proposatu, eta naturaltasun osoz eman du baietza; baita García Ariñok berak ere, elkarrizketatzailea nor zen esaterakoan. Berrizko pilotalekuan batu dira, eta pilota aukeraketetan saskian aurkituko duen materiala galderen konpromiso mailak baldintzatu dezakeela abisatu dio atxondarrak. Zabala galdezka hasi zaio, pilotaren bilakaerari, García Ariñoren pilota ibilbideari zein bere buruari buruz.

**Gaur egun binakakoa da jenderik gehien batzen duen txapelketa. Zure sasoiaren buruz burukoa zen, ezta?**

Bai. Buruz burukoan finalerdietatik aurrera goiz eta arratsalde egoten ziren partiduak. Partiduak goizean baziren, arratsaldeko sarrera nahitaez hartu behar zen. Eta, hala eta guztiz ere, mesedeak eskatu behar sarrerak lortzeko. Herriko eskabideak kontuan hartuta, pilotari bakoitzak ehun bat sarrera izaten zituen goiko harmailetan. Gaur egun, sarrera bat ezin liteke saldu. Orduan, pasilloetan ere jartzen zen jendea. Eta pasilloetan esertzea lortuz gero, pozik! Donostian hiru mila lagunetik gora sartu izan dira.

**Gaur egun ez da horrelakorik ikusten.**

Ez. Aipatu izan dute orain, beharbada, jendea ez dela jabetzen buruz burukoak duen zailtasunaz. Binakakoan pilotoe gehiago dago, eta hori deigarriagoa da gaur egun.

**Zer pilotari klase zen Roberto García Ariño?**

Defentsan hobeto aritzen nintzen erasoan baino. Uste dut ez nintzela pilotari handia izan, baina saiatu egiten nintzen, eta horrek bere fruituak eman zituen. Nire aldean pilotari garrantzitsuagoak zeuden sasoi hartan, baina, zortez edo burugogorkeriaz, final askotara heldu nintzen.

**Zortzi finaletara heldu zinen: bost buruz buru eta hiru binakakoa. Gaur egun ere sinatu daiteke horrelako marka.**

Sinatu daiteke, baina irabazteko. Finalak irabazteko dira.

**Nik heltzea ere sinatuko nuke.** Galtzera ez da ohitzen. Bosgarren finala galdu ondoren, txarrago geratzen zara lehenengoan edo bigarrenen galdu ostean baino. Pentsatzen duzu: "Zer trakets klase haiz hi, ezer ez duk irabazi-eta!". Gero eta tanto gutxiagorekin uzten ninduten gainera, eta jokorik atera ezin. Oraindino pena handiagoa geratzen zaizu.

**Zein atzelarekin jokatzeko gustura?**

Iñaki Gorostizagaz. Gertukoa zen, beti elkarrekin entrenatzen genuen, beti brometan... *Feeling* handia geneukan. Orduan binaka gehien jokatzeko zuena Antxon Maiz zen. Beragaz edozein pilota atera zenezakeen, ez zizun ezer esaten, eta ikaragarri jokatzeko zuen pilotan. Denean zegoen. Gozamina zen beragaz jokatzeko. Iñaki erabat desberdina zen. Eskuin potentzia eta distiratsua zuen. Biek hartu-eman itzela izan dut.

**Gogoan duzun partidu berezi bat?**

Buruz buru lehengoz jokatu, eta Julian Gajosi irabazi nion partidua. Gajos txapelduna zen orduan. Orduko egunkari batean, Bizkaiko kazetari batek honako hau idatzi zuen aurreko egun batean: "Dirua irabaziko du, baina bestela García Ariñok zer egin ahal izango du, bada, Garcesen aurka". Hori da laguntza! [Barre]. Eta 22-13 irabazi nuen.

**Gogoan duzu txikia nintzean amarekin joaten nintzela zugana, eta postalak ematen zenizkidala eta pilota jarraitzea animatzen ninduzula?**

Bai, zugaz gomuta onak ditut. Gero gora heltzen zarete, eta, gainera, ingurukoak izanda, norbera ere poztu egiten da. Hemen inguruan pilotan egiten genuenean, zaletasun itzela zegoen, eta babes handia jasotzen genuen. Orain Athleticegaz gertatzen den moduan.



Lehenengoz profesional batekin entrenamendu saio bat egin nuenean adierazi zenuena ondo gogoan dut: "Pilotarekin oso enkontru ona du".

Une hartan ikusten zen zelako gogoagaz joaten zinen pilotaren bila, erraztasun handiz. Atzean Oier Zearra zenuen parez pare, ezta?

**Bai. Baina Zearra eskutik ez zebilen ondo.**

Bai, baina pilotari handia zen. Zeure buruari ez kendu meriturik. Ez zen erraza. Eskuinagaz pilo bat gozatu zenuen egun hartan, eta uste dut eskuan, takoen artean, babes gisa txapa bat zenuela, ezta? Eta, hala ere, bizi-bizi joaten zinen pilotaren bila.

**Zertan hobetu behar dudala uste duzu?**

Batez ere, atzetik kolpe gutxiago ematen, eta pilota hobeto bideratzen. Ez itxaron pilotak jan zaitzan, pilotaren enkontrua aurrerago egin. Eskopetaz gabilia zara?

**Sekula ez naiz ehiztaria izan.**

Ni sasoi batean bai. Tiroa jarraera egokian botaz gero, bertan geratuko zara, bestela atzerantz eramango zaitu. Pilotagaz berdin. Gorputzagaz lagunduta, pilotak beste karga bat hartzen du.

**lazko urrian baxu samar ibili nintzen, lesioa bat tartean... Espero zenuen nik egoera horri buelta hain arin ematea?**

